Txanpaina, mesedez

Oier Santos

Bioleta / Saila

Txanpaina, mesedez

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

1. argitalpena: 2015eko maiatzean

Azala eta liburuaren diseinua:
Iturri
Azaleko marrazkia:
Unai Huizi
Maketazioa:
Itxaropena
© Oier Santos Arrastua
© EREIN. Donostia 2015
ISBN: 978-84-9746-935-7
L. G.: SS.508/2015
EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300 F 943 218 311
e-mail: erein@erein.eus
www.erein.eus
Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.
Araba kalea, 45. 20800 Zarautz
T 943 835 008 F 943 130 822
e-mail: itxaropena@itxaropena.net
www.itxaropena.net

Txanpaina, mesedez

Oier Santos

erein

1

“Txanpaina, mesedez!”, entzun zen urrutian. Momentu hartan bertan ikusi nuen lehenengoz nire ametsetako gizona. Oihu hura nondik zetorren begiratzeko egin ohi den oharkabeko ekintza izan zen nirea. Ez nuen beste munduko beharrik, hain ohikoa den deiadarra nork egin zuen jakiteko, begiratu egin nuen ordea. Une hartantxe aldatu zitzaidan bizitza.

Nik ez nuen ezkontza hartara joateko gogo handirik, halere aspaldiko lagun batek behin eta berriro eskatuta, eta nire azkenaldiko herdoiltasuna kontuan hartuta, ez zitzaidala gaizki etorriko onartu nuen. Harez gain, benetan maite nuen laguna zen ezkongaia, ondorioz, bertaratzeko beharra sentitu nuen, eta ez naiz damu, inolaz ere.

Ikastolako nire lagun-mina ezkondu zen, Ihintza. Lagun berezia zen, betirako izaten den lagun horietakoa, hala eta guztiz ere, uste baino lehenago, gure adiskidantza suntsiezin hura ni institutura joan bezain laster eten

zen. Era berean, egiari helduta, ez zen gure laguntasun hura inoiz ere amaitu, hark ikastolan jarraitu eta nik institutura alde egin nuenez, besterik gabe gure harremana ez zen hasierako berotasunean gorde. Noizbehinka, topo egiten genuenean, hagitz gustura solas egiten genuen, zorigaitzez, gure bizitzek bide ezberdinak jarraitu zituzten. Ezkondu egingo zela esan zidan unean, berriz, aurretik gordetako laguntasun guztia, nolabait bere horretara itzuli zela sentitu nuen. Egun berezi hartan, nire bizitzak beste bide bat hartu zuen. Ihintzaren eta nire arteko adiskidantza, bat-batean 12-13 urte genituenean izandako gertutasunera itzuli ez arren, ezkontza hark nabarmen hurbildu gintuen. Ekitaldi berezi hark, nire bizitzari ate berria ireki zion, gaur egun naizena izatera ahalbidetu duen atea alegia.

Ezkontza zinez polita izan zela aitortu behar dut, elizan ospatutako errirual bitxi hura ez zen guztiz gogoko dudan jarduera, baina egiari zor, hunkigarria, eta xarmaz beterikoa suertatu zen. Ihintza ikusgarri zegoen, soineko txuri gordin batez jantzirik, edonor maitemintzeko moduko itxura zuen. Bere azalak eta orrazkera xumeak ukitu berezia ematen zioten, niretzako nahiko nukeen itxura paregabea zuen Ihintzak. Senargaiak, Ihintzak mutilen artean betidanik izan zuen arrakasta kontuan izanda, berezko edertasunaz gain, jantzi eta aire txukuna erakusten zuen. Apaiza ere jator aritu zen. Harritu-

ta geratu nintzen haren hitzen sinpletasun eta zentzutasunarekin. Aitortu behar dut zinez hunkituta sentitu nintzela.

Lagun zaharrak eta Ihintzaren senitartekoak agurtzen eman nituen elizkizunaren ondoko minutuak, eta behin egoera deseroso haren ondotik, autobusean abiatu ginen jatetxera. Behin jatetxean, ikastolako lagunen artean eseri ninduten eta, gehienekin harremana galdua nuela kontuan hartuta, ez nintzen guztiz deseroso sentitu. Era berean esan behar dut ez zela nire bizitzako bazkaririk atseginen eta dibertigarriena izan.

Ezkontza ospakizunetan egin ohi den legez, bapo jan genuen. Itsaski famatuak jan beharrean izan nintzen, nahiz eta deus ere atsegin ez zaizkidan. Hogeita hamabost urterekin itsas munstro haiek jango ez nituela adieraziz gero, lotsak, zaporearen gainetik, gaizki sentiaraziko ninduen. Ondorioz, txikitan egiten nuen bezala, begiak itxiz jan nituen animalia gaixo haiek. Langostino, txangurro eta abarren ondorengo jakiak, berriz, askoz ere atseginagoak suertatu zitzaizkidan, eta ordura arteko zapore garratz guztiak ahantzi egin zitzaizkidan.

Une hartantxe entzun nuen nire belarrietarako hain goxoa izan zen hitz parea, "Txanpaina, mesedez!". Inkontzienteki zuzendu nuen nire begirada bera zegoen lekura. Ez nintzen bere presentziaz momentu hartara arte jabetu. Ez nuen gizon hura ezagutzen, ez behintzat

nire memoria eskasaren arabera. Bera ikustean, ordea, nire gorputzak kolpe itzela jasan zuen. Hain ixil eta hain deigarri, horren xume baina horren dotore, hain xehe baina horren ikusgarri. Nire bihotzak ez zuen inoiz hainbesteko lanik izan odola gorputz osora zabaltzen, eta nahigabean bihotz taupadak sendotasunean areagotzen joan ziren, nire burua biziki larritu zen arte.

Egoera arraroa bihurtu zen, ez nuen ezer ere entzuten, giroan zarata monotono jarraitua aditzen nuen, eta jendea oihuka eta algaraka egon arren, niri ez zitzaidan besterik burmuinetara iristen. Ezjakintasun egoera arrotz batean sartu nintzen; ez nekien komunera joan, aurrean nuen kideari hitz egiten hasi, kalera irten eta etxera korrika bizian joan, edo Ihintzarengana abiatu eta ospakizun bikaina izaten ari zela aitortu. Ez nuen aukera haietatik, bat bera ere hautatu. Nire barnean zerbaitek edo norbaitek hanketatik tinko heldu eta mutil zirraragarri harengana eraman ninduen. Nire bizitzan inoiz egingo ez nukeena egin nuen une hartantxe. Zonbi baten moduan gerturatu nintzen nire bizitzako mutilarengana.

Etxetik atera zenean, eguraldi traketsa zen nagusi Donostian. Antiguako auzoan bizi zen Ane, eta hondartza aldera irten zen pasieran. Hasiera batean garrantzirik

eman ez arren, egoera berezi hark benetan *esnatu* zuen. Auto gutxi batzuk berdez margoturik zeuden, ez ziren auto guztiak, bai zenbaitzuk, ordea, bost minututik behin ikusteko aukera zuen, hala harridura bitxi bat sentitu zuen. Berde bizi xamarra zen, eta ez zeuden gaizki margotuak, hala ere, bistan zen jabeek ez zutela euren kabuz margotu. *Ñoñostiarrek* zuten ospearekin, ez zitzaion burutik pasatu ere egin, autoak kolore hartan margotzea modan jarriko zenik.

Berdez zeuden autoek besteekiko zein ezberdintasun zuten ez zuen asmatzea lortzen, baina logika bat eduki behar zutela ziur zen. Hasieran, auto handi edo 4 x 4 deituriko autoak ikusi zituen berdez margotuak, halere, auto txiki batzuk ere kolore hartaz margoturik zeudela erreparatzean, ekuazio hura zailtzen hasi zela otu zitzaion. Auto zaharrak eta berriak ziren, handiak bezala txikiak, autoen jatorriari ere begiratu zion, euren jatorrizko kolorea zein izan zitekeen ere bururatu zitzaion emaitza lortzeko. Ezer ez. Ariketa bitxia bihurtzen hasi zen hura.

Matrikulari erreparatu zion jarraian, eta auto guztiek tartean 7 zenbakia zutela konturatu zen, halatan, hipotesi huraxe indarra hartzen hasi zen. Orduan, burua hurrengo pentsamendura joan zitzaion: nork egin ote du hori? Eta zergatik? Mundu honetan hamaika ikusteko jaioak garela aipatzen zion bere burua-

ri, hala eta guztiz ere, ez zitzaion matrikularen arrazoia batere serioa iruditu. Sinesgaitza zen norbaitek 7 zenbakia autoan izateagatik halako zer edo zer egitea. Zein gizarte aldrebestutan bizi ote gara? Nola liteke horrelako zerbaitegatik auto bat berdez margotzea? Eta zergatik berdez eta ez arroxaz? Agian arroxa politagoa izan zitekeen halako ekintza burugabea deigarriago egiteko? Eta behin margotzen hasita, zergatik ez auto guztiak Erromako zubiaren koloreekin margotu? Bizitza politagoa izan zitekeen halaxe…

Une hartan bertan, garunetako langileren batek toktok jo zuen Aneren inozentzian, eta ohartu zen zenbait autok ez zutela 7 zenbakia tarteko. Hala, emakume bat horren inozoa nola izan zitekeen galdetu zion lanean ari zen garunetako langile berberari. Norbaitek autoak berdez margotuko zituela 7 zenbakia matrikulan izateagatik pentsatzea ere… Ene! Emakumea zer duzu hor goian?, galdetu zion kaskezurrari. Erantzun gisa ez zuen isiltasuna baino jaso.

Hala ere, ekuazioak oraindik emaitzarik gabe jarraitzen zuen, beraz, ezin zuen bere burua ezjakintasun hartan utzi. Ondarretako hondartzako aulki batean eseri, eta *benetan* pentsatzeari ekin zion.

Hondartzan eserita zegoela, olatuei hara eta hona begiratzen zien, itsasoaren doinu bereziari jarraiki. Ane ikaragarri lasaitzen zuen olatuen koreografia bi-

txi hark. Era berean, buruan erabat lasaitzen uzten ez zion zerbait ari zen biraka. Autoen istorio hark ez zuen bakean uzten. Hastapenean, ekuazio berezi hark buruhausteak eman arren, ondoren, benetako buruhaustea beste bat zela jabetu zen. Hau da, zergatik egin ote zuten hura? Huraxe zen benetako ekuazioa.

Areagotzen ari zen ezinegonak gainezka egin, eta etxera itzuli behar zuela sentitu zuen. Ezinezkoa zitzaion beste gauza batera pentsamendua bideratzea, ondorioz, aztorapen eta etsipen puntu batekin sartu zen etxean. Zapatak zegozkion armairuan utzi, eta etxeko zapatilak jantzi zituen. Etxeko arropa janztera zihoan momentuan, telefonoak izu itzela eragin zion, irrintzika hasi baitzen. Kolpetik jaikiarazi zuen hots hark, eta telefonoko pantailari behatutakoan, are gehiago izutu zen zenbaki ezezagun batek deitzen zuela ikusita. Emakumeek izan ohi duten intuizioak esaten zion dei hark zerikusia zuela autoen ekintzarekin. Ez zuen zertan hala izan beharrik, baina berak bazekien, dei haren ondorioz, *zerbait* gertatuko zela. Hala, deia ez hartzeko tentazioa eduki zuen, baina emakume senak kontrakoa egin behar zuela esaten zion.

Eskuak dardarka zituela konturatu zen, etxeko telefonoa hartzera zihoan unean, zergatia jakin gabe, oso urduri zegoela ohartu zen, uste baino arduratuago.

–Bai? –esan zuen ahots fin eta pattalarekin.

–Gaur da eguna –entzun zuen ahots sendo eta indartsu bat.

Esaldia bukatu bezain laster, beste aldeko gizonak deia moztu egin zuen. Ez zen ahotsik, hotsik edo bestelako zaratarik entzun telefonoaren beste aldetik.

Dei hark jota utzi zuen, kirioak erabat jota. Burua lasaitze aldera, telebista piztu zuen. Telebistan, Zeelanda Berriko animalien gaineko dokumental interesgarria zegoen. Hala, deia ahaztea erabaki, eta aurrera jarraitu beharrean zela pentsatu zuen. Ezin zuen beldurrak astinduta geldirik geratu, galtzaileek egoera txar baten aurrean egin ohi duten bezala. Bera, emakume gogorra eta indartsua zen, bere burua halakotzat zuen behinik behin, beraz, egoera haren aurrean ezin zela kikildu esan zien bere burmuinei.

Telebistak bere horretan jarraitu zuen, hain bereziak ziren animaliak nolakoak ziren azaldu nahian. Ane berriz, senarrari bazkaria prestatzen hasi zen. Ez zuen telebista itzali, nahiz eta bazkaria egiten zuen bitartean, telebista ikusteko aukerarik izan ez. Hala eta guztiz ere, narratzailearen ahotsak lasaitu egiten zuen eta gainera, Zeelanda Berriko pinguinoen ezaugarrien gainean zer edo zer jakiteko, irudiak ez ziren beharrezkoak.

Bazkaria egiteari ekin zion, babarrun gorri goxo-goxoak prestatzen hasi zen. Halatan, behingoz pittin bat lasaitzea lortu zuen, esatariak zioena arreta han-

diarekin jarraituz. Babarrunak eltzean sartu zituenean, mahaia prestatzen hasiko zela erabaki zuen, burua beste leku batean gordetze aldera. Halaxe egin zuen, inoiz baino arreta handiagorekin mahaia prestatuz. Hiru ordu laurden geroago, senarra bertan izango zen, eta agian, hala errazagoa izango zitzaion lasaitasuna berreskuratzea.

Une hartan bertan, sakelakoak berriz ere egundoko izua eragin zion (aurreko deiak baino gehiago. Finean, lehenengo deia jasotzerakoan, *seinale* baten esperoan zen. Bigarren dei hark, berriz, ez zuen inolako *seinale* izaerarik).

–Bai? –esan zuen aurreko ahots berarekin.

–Ane? –erantzun zuen beste aldeko gizonak.

–Bai, bai, neu naiz –izua erakusten zuen ahotsarekin.

–Zer gertatzen zaizu, Ane? Ni naiz. Markel –esan zion beste aldeko gizonak.

–Ai ama, Markel, ez zaitut ezagutu. Zuk deitu al duzu etxera orain dela hogei bat minutu?

–Ez, neska. Baina zer gertatzen zaizu? Nork deitu du ba?

Istant hartan, senarra izutzeak zekarrena kontuan hartuta, aipamen hura egitea ideia txarra izan zela igarri zion. Ez zuen senarra arduratu nahi, beraz, aipamena saihestu nahirik, beste zerbait esatea bururatu zitzaion.

–Ez, norbaitek, lehen, etxera deitu du eta ez dut erantzunik jaso, horregatik sakelakora deitzerakoan apur bat izutu egin naizela onartu behar dut. Lasai, nire gauzak dira –esan zion garrantzia kendu nahian.

–Ziur al zaude, Ane? Nik beldurtu xamar nabaritzen zaitut. Ongi al zaude? –esan zion Markel senarrak.

Gizonari ere, goizean autoa ikusterakoan sentitu zuen amorrua eta beldur puntua etorri zitzaion gogora. Izan ere, goizean goiz autoaren bila joaterakoan, bere BMW liluragarria guztiz margotua ikusi zuen. Berdez zegoen *apainduta,* eta hortaz, gustu txarreko txantxa zela iruditu zitzaion. Bere autoa gorri bizi ikusgarri batez margotuta zegoela aintzat hartuta, berde ziztrin hark ez zion autoari berez zuen ikusgarritasun hura erakusten uzten. Horrez gain, galdera andana pilatu zitzaion buruan, goizean goiz halako *maisu-lana* ikusterakoan: nori otu ote zitzaion halako narraskeria egitea? Zergatik egin ote zioten halako zapokeria berari? Gauzak horrela, familiaren aurkako erasoa izan zitekeela bururatu zitzaion, hargatik guztiagatik, arduratuta geratu zen emaztearen erantzunarekin.

–Ziur, Markel. Lasai. Ez da ezertxo ere gertatzen –utzi zuen nahi gabean isilune misteriotsua Anek–. Baina, zergatik deitzen duzu?

Isilune hark ez zuen Markel deus ere lasaitu, ondorioz, hasierako beldur apurrak, kaskezurretik hasi eta

azken behatzeraino harrapatu zuen, gorputzean izua barne-barneraino sartuz.

–Baina Ane! Mesedez! Zer gertatzen ari da hor! Arazorik baldin baduzu, mesedez, esan nire…, beno, badakizu! –Izan ere, Markel, Ertzaintzako zuzendaria zen, hots, Ertzaintza eta politikarien arteko lotura-gizona zen. Txikitatik polizia izateko ametsa izan zuen; bestalde, gaztetxo garaira iristerakoan, politikan sartzeko gogoa ere piztu zitzaion. Ezker aldeko alderdiren batean murgiltzeko ahaleginetan ibili arren, ez zuen bere izaera eta ideiekin guztiz bat zetorren alderdirik aurkitu. Azkenean, Ertzaintzan sartzeko frogak egin, eta bertan lanean hasteko aukera izan zuen. Bere izaera eta lanerako ahalmenarekin urte gutxiren buruan, goraino iristea lortu zuen, zortzi urte zeramatzan jada lanbide hartan. Alderdi guztiek zioten estimua, eta ondorioz, bere lana ordura arte, arazo handirik gabea izan zela esan zitekeen, postu hark izan zitzakeen arazoak kontuan hartuta.

Honela, Anerekin aurretik hitzartutako teknika bat erabili zuen, bestaldekoaren izena hiru alditan esatearena alegia. Modu hartan, telefonoaren beste aldekoa arazotan zegoen ala ez jakiteko balio zuen.

–Lasai, Markel. Ez dago inolako arazorik –esan zuen, lasaitu nahian, Anek.

Momentu batez, Markel isilik geratu zen, falta zitzaizkion bi *Markelak* entzuteko, hala ere, ez zuen bel-

durraren antzeko zantzurik nabaritu ere egin.

–Ongi da, Ane. Benetan ongi zaude, ezta? –bukatu zuen senarrak.

–Bai ba! Egiatan gizona! Ez da horrenbesterako.

–Ederki ba. Orduan, gero arte! –erantzun zion Markelek lasaiago.

–Nola, gero arte! Baina zertan ari zara, Markel?! Zertarako deitu duzu? –adar soinuan.

–Aiiii! Egia da, izutu egin nauzu neska! Ez naizela bazkaltzera joango esateko deitu dizut. Bilera batean nago, eta honek luze doala dirudi, beraz ezin izango dut joan.

–Joe, Markel! Lehenago abisa zenezakeen! –purrustaka Anek. Gorputzean oraindik nabaritzen zuen beldurrak eta azken albiste hark guztiz atsekabetu zuten emakumea.

–Sentitzen dut, Ane –ahal zuen doinu maitekorrena erabiliz Markelek.

–Lasai, Markel, babarrun gorri goxo batzuk prestatzen ari naiz, baina nik bakarrik jan beharko ditut. Gauean elkar ikusiko dugu? Ez zara beranduegi etorriko, ezta?

–Arazo batzuk eduki ditugu eta ez diot nik itxura onik hartzen…

–Zergatik? Zer gertatu da ba? –moztu zion arduraturik Anek.

Markelek egoera ez aztoratzeko eta era berean emaztea ez larritze aldera, garrantzia kendu nahi izan zion esku artean zuten kasu berriari, halatan, ez zion deus ere aipatu.

–Ezer ez, neska, ez da ezertxo ere gertatu baina badirudi, arazotxoak ez gaituela gaurkoz behintzat lasai utziko.

–Ongi da. Gauera arte orduan, ez berandu iritsi gero! Zure esperoan egongo bainaiz! Muxu handi bat! Aio!

–Baita zuri ere. Lasai, bazkaltzeko ez, baina afaltzeko hor izango nauzu… eta gorde babarrun batzuk niri, amets egingo baitut babarrunekin afaltzeko ordura arte! Muxu bat! Biziki maite zaitut!

–Baita nik ere! –malenkoniatsu Anek.

Arratsaldea luzea egin zitzaion Aneri. Oso luzea. Ez zuen eguerdiko dei hura ahaztea lortzen, eta auto berdeen aferak ez zion bakean uzten. Gainera, Markel inoiz baino urduriago nabaritu zuen, senarra egoera hartan nabaritzeko, larri xamarra edo arduratzeko modukoa izan behar zuen behintzat. Beraz, argi zuen egun hura ez zela bere bizitzako *beste bat* izango.

Supermerkatura joatea erabaki zuen, etxeko zuloan arratsaldea are eta luzeagoa egingo zitzaiolakoan.

Gainera, nagusiak lanera ez gerturatzeko eskatu zion, izan ere, kanpora joan beharrean zeuden, eta Aneren presentzia ez zen beharrezkoa. Anek gobernuz kanpoko erakunderen bateko idazkari, laguntzaile, edo antzerako lantxoak egiten zituen. Nagusiak askotan kanpora joan behar zuenean, lanera ez gerturatzeko esaten zion. Lan txikia, sinplea zen, ikaragarri atsegin zitzaion. Barruko elkartasun sena asetzeko, eta bide batez, horren kausa politean laguntzeko egiten zuen lan. Anerentzat propio eginiko lanpostua zela esan zitekeen. Ez zuen kanpaia jotzeko moduko soldatarik, are gehiago, muxu-truk egitetik hurbilago zegoen, baina Markelen soldatarekin, ez zen beharrezkoa beste diru sarrerarik etxean. Berak bizitza eta batez ere barrua betetzeko egiten zuen lan, gainetik, lan interesgarria zen oso.

Ez zituen oinarrizko erosketak egin behar, hozkailua huts xamar zegoela iruditu zitzaion, ordea, bertara berendua egiteko gerturatu zenean.

Supermerkatura bidean, auto berdeak ikusten jarraitu zuen, goizean ikusitakoak baino gutxiago ikuskatu zituela iruditu zitzaion, halere, bere bi eskuetako hatzak kontatzeko adina ikusi zituen. Berriro ere, galdera mordoa etorri zitzaion burura *brainstorming* gisara. Zergatik? Nola? Noiz? Nork? Nori? Eta oraindik bakean utzi ez zuen ekuazioa ere etorri

zitzaion gogora. Hau da, zer logika jarraitzen zuten auto haiek guztiek?

Garunetako motorraren *stop* botoia sakatu zuen behin eta berriro, pentsamenduen eraso hura gehiago ez jasateko. Hala ere, ez zuen nahi adina lortu, izan ere, lagun batekin topo egindakoan, lehenengo galdera huraxe izan zen. "Nork egin ote zuen pikardia hura inguruko auto mordoarekin?". Berak ere bere buruari gauza berbera galdetu ziola erantzun zion emakumeari, eta oraindik erantzuterik ez zuela lortu. Honela, tortura bihurtzen hasia zen gai haren orrialdea pasatzeko asmoz, beste gai bati heldu nahi izan zion:

–Zer moduz Iosu? Hobeto al dago? Eskolara joateko moduan al da?

–Bai, hobeto dago –erantzun zion lagunak laburki. Tamalez, ez zuen nahi zuena lortu, eta berehala itzuli zen hain arrotza bihurtu zitzaion gaira–. Baina zure senarrak ez al dizu ezer ere esan autoen aferaren gainean? Ba al dakite nork egin duen, edota zergatik?…

–Ez, ez, ez! Ez naiz nire senarrarekin oraindik egon! –erantzun zion hotz xamar Anek, gai hark erabat aspertzen zuela erakutsiz.

–Jo ba egundokoa egin dute oraingoan! A zer nolako txantxa!… –jarraitu zuen lagunak purrustaka.

–Egia da, bai! Badirudi jendeak ez duela beste egi-

tekorik, ondokoa izorratzea baino! –egin zuen Anek bestela bezala.

Lagunak berezkoa zuen anitz hitz egin eta ezer ez esateko ahalmena, halere, ez zuen gogoan emakume hura halakoa zenik. *Lagun* maila kendu, eta *ezagun* mailara jaitsi beharrean zela otu zitzaion. Ondorioz, kolpetik supermerkatura abiatzeko irrika areagotu zitzaion, bertan txokolate beltza kiloka oparituko balute bezala.

Supermerkatura sartzea une hartan, terapia gisako zerbait bihurtu balitz bezala hauteman zuen, bertara sartu eta haur bat Eurodisneyra sartuko bailitzan zegoen Ane. Kasu hauetan ohikoa den bezala, beharrezkoa baino askoz ere gehiago erosi zuen, eta etxera esku banatan pare bat zorro zituela abiatu zen.

Etxera iritsi bezain pronto, goxo-goxo egongelan eseri, eta beste gauzarik egin gabe egoteko desira piztu zitzaion orduan. Halaxe egin zuen, erosketak poltsetatik atera gabe eseri zen egongelan *Mujeres desesperadas* telesaila ikusteko asmoz, disko gogorrean zuela gogoratu baitzuen. Markel iritsi artean, eginbehar nagusia hura izango zuela agindu zion kaskezurrari.

Telesail hura oso bitxia zen, ez zuen bere burua emakume haiekin identifikatuta sentitzen, hala ere, nahi gabean, emakume haienganako enpatia izugarria zuela iruditu zitzaion. Ez zuen, agian, emakume *deses-*

peratu haietako baten larruan bere burua ikusten, telesaileko bizilagunetarako, berriz, ederki balioko zuketela pentsatu zuen.

Markel atetik sartu zenean, arratsalde hartan ikusitako laugarren atalean zegoela konturatu zen. Beraz, egindako atsedenak kontuan hartuta, lau orduz aritu zen telesaila ikusten. Burua guztiz lasaitzea lortu zuen, ordea, hain gustuko bihurtu zen saioarekin. Markel bere parera iritsi zen arte, ez zuen ezertxo ere esan, hurrengo elkarrizketa oso atsegina izango ez zelakoan baitzegoen emaztea. Beste behin, Anek hain garatua zuen emakume sen haren bidez asmatu egin zuen:

–Kaixo, Ane –esan zuen Markelek gerturatzen zihoala.

–Kaixo. Zer moduz?

–Baaa, egia esan behar badut, ez oso ongi. Egun luzea izan da –erantzun zion Markelek.

Ane ohartu zen erantzun hura bera izan zitekeela bere egunaren definizio bikaina, eta halaxe erantzun zion senarrari.

–Nik ere halakoxea izan dut eguna, luzea! Ez esan zergatik, baina egun txarra izan dut. Hala ere, ziur aski zurea baino askoz ere atseginagoa izan da, maite –esan

zion ezinegona ezkutatu nahian. Izan ere, bere eguna *objektiboki,* ez zen txarra izan; bere sentsazioek ilundu zuten bere eguna.

Markel, nekatuta, gosez, eta hurrengo eguna iristeko zain zegoen, eta ez zion Aneren aipamenari kasu askorik egin. Ez zuen nahi beren arteko elkarrizketa nekatuta bizi diren bikote jubilatuenen antzekoa bihur zedin. Gizon praktikoa zen Markel. Bizitza negatibizatzeko ohiturak ez zuen gogobetetzen, baikortasunari heltzeko grina zuen.

–Ba bai, egun traketsa izan da, hobe beste gai bati helduko bagenio, eguna erabat zapuztuko dugu bestela. –Muxu goxoa eman zion emazteari ezpainetan.

–Gainetik kontatuko didazu zer gertatu den behintzat, ezta? Bazkaltzera etorri ez eta halako eguna zerk ilundu dizun jakin nahi nuke.

Bazekien Markeli ez zitzaiola hagitz atsegin laneko gaiak kontatzea. Batez ere, emaztearen onerako egiten zuen hura. Lantzean behin, ordea, konta zitekeen zer edo zer aipatzen zion, mundua nondik nora zebilen jabetzeko; hura ere, ertzainaren ikuspuntutik, ia inoiz ez zen batere atsegina izaten. Inoiz ez, egia esateko. Hala ere, gonbitea onartu zuen, bete-betean harrapatzen zuela kontuan hartuta.

–Ba, laburbilduz. Gaur gauean norbaitek ekintza arraro bat egin du, eta, beste hainbaten artean, gure

autoa berdez margotu dute goitik behera. Zer iruditzen? Ehunka dei izan ditugu euren autoa berdez margotu dutela salatuz, eta guk datuak besterik ezin izan ditugu hartu. Zer egingo dugu? Badirudi Antiguako auzoan gertatu dela, eta hainbat hipotesi ditugu esku artean, baina indar gehien hartzen ari dena…

–Ez esan! Mesedez! –oihukatu zuen bat-batean Anek, uste baino ozenago eta aztoratuago hitz eginez, Markelen harridurarako, birritan eskatu zion ez esateko.

–Baina zer gertatzen da, Ane? –galdetu zion beste behin, guztiz arduraturik senarrak.

–Ez, ez, esan nahi nuen ez argitzeko, izan ere, goizean hondartzara pasieran irten naizenean, hainbat auto ikusi dut, eta ordutik hona hor nabil, buruari bueltaka, auto berde haiek zer logika jarraitzen duten jakiteko.

–Ba jai daukazu! Egun osoa eman dugu ariketa hori ebatzi nahian, eta, egia esan behar badizut, oraindik ez nago guztiz ados azkenean onartu dugun hipotesiarekin. Nahi ez baduzu, hala ere, ez dizut ezer esango eta ea zuk lortzen duzun. Lortzen baduzu, gure sailerako proposatuko zaitut –esan zuen Markelek, egun guztian umore pixka batez eginiko hitz bakarrekin.

Ane urduri jarri zen, zentzu handirik gabeko zer edo zer esan zuen gainetik erantzuna kendu nahian:

–Ez, soilik otu zait matrikulan 7 zenbakia zuten au-

toei egin dietela zapokeria hau, baina gure autoak ez du 7 zenbakirik, beraz, ezinezkoa da. Etxean jarraitu beharko dut zure lankide jakintsu horiekin lanik egin gabe –egoerari umore tanta batzuk erantsi nahian.

–Ez ba, ez da hori. Baina, Ane, zer gertatzen zaizu? Urduri xamar ikusten zaitut. Ziur al zaude ez dela ezer gertatu ni hemen kanpo egon naizen bitartean?

–Ezetz ba, lasai egon! Nire burutazioak dira, burua okupatuta edukitzeko hartzen ditudan lanak besterik ez dira –Anek, keinu bihurrian.

–Ederki! Beno ba, honekin bukatzen dut. Honenbestez, kontatu egingo dizut zein izan den gure buru *adimentsuek* ondorioztatu dutena? –Anek buruarekin baiezkoa egin aurretik erantzuna eman zion–: Gauza da zera uste dugula, norbaitek potentzia handiko autoak berdez margotu dituela kutsaduraren aurkako ekintza bat aurrera eraman nahian. Edo behintzat hori izan da ondorioztatu duguna. Izan ere, komunean zuten irizpide bakarra horixe dela uste dugu, edo behintzat salaketen bidez ordenagailuen laguntzaz hori izan da atera duguna. Kutsaduraren aurkako ekintza bat dela atera dugu gure kabuz, kolore berdea erabili dutela aintzat hartuta. –Sorbaldak igo zituen besterik ez zuela erakutsi nahian.